

## INFORMATIKA ETA BIDEOA BATERATUZ

Gaur egungo enpresa askotan gestioa eta beste lan batzuek gain aurkezpen komertzialak ere ordenadore bidez egiten dira. Hardy izeneko taldeak, informatika eta bideoa bateratzeko balioko duen V.O.B.-Encoder txartela kaleratu du duela gutxi.

Txartel hau instalatuz gero, ordenadorez sortutako aurkezpen eta grafikoak bideo-zinta batean graba daitezke eta baita telebista-monitore batean baino gehiagotan edota pantaila handiko proiektore batean erakutsi ere. Honez gain, bideo-imaginak eta grafikoak nahas daitezke eta nahi izanez gero, azpituak eta efektu bereziak sartu ere bai.

## BIRIKEN FUNTZIOAREN DIAGNOSTIKOA ORDENADORE BIDEZ

Ibermatika-k birika-funtzioaren diagnostiko automatikorako sistema instalatu du Asturiaseko Ospitale Nagusian. Sistema hau ospitale-kopuru handi batean aplikatu daiteke, zentruak duen azpiegitura elektromediko osoa aprobetxatzen delarik.

Torax-eko imajina bakar batetik abiatuz, orain arte gaixoarentzat proba luze eta gogorak eskatzen zituzten egoerak zehaz daitezke, aipatu ospitaleko biriketako aditu batek dioenez. Sistema hau oraindik proba-fasean badago ere, Valentzian ospatuko den Nazioarteko XX. Erradiologi Kongresuan aurkeztuko da.

Ordenadore batek eta ikusmen artifizialerako eta irudien tratamendu digitalerako sistema batek osatzen dute teknologia berri honen euskarri fisikoa. Ibermatikako arduradunek instalazio osoaren kostua hamabost milioi ingurukoa izango dela esaten dute.

Gaixoen birika-funtzioa analizatzeko prozesua, X izpizko aparatuek edota molekulen erresonantzia magnetikoen sortzen dituzten imajinak jaso eta modu digitalean gordetzen dituen irudi-harrapatzaile batekin hasten da. Bereizmen handiko pantaila eta teklatura dituen monitore batean, imajinak, grafikoak eta mezu alfanumerikoak aldi berean ikusi ahal izango dira, eta azkenean, bereizmen handiko inprimagailuak inprimatuko du biriken miaketaren emaitza.

## CA-TRAPS: SOFTWAREAREN ANALISIRAKO ERREMINTA

Erreminta honen aplikaziorik nagusia edozein enpresa edo departamentuk sortutako softwarearen kalitatea automatikoki, hau da, gizakiak parte hartu gabe, kontrolatzea da.

CA-Traps-ek duen gordeketa eta erreproduzio automatikorako sistemak, proba-kopuru handia diseinatu eta nahi adina aldiz exekuta erazteko ahalmena ematen dio.

Analizatutako softwarearen funtzionamendu-akatsen detekzioa, espero zen erantzuna eta programak emandakoa konparatuz egiten da. Probaren amaieran zehaztuko dira aurkitutako akatsak eta sistemak emandako erantzun-denborak.

Programa edo aplikazio baten funtzionamendua aztertzeko burutzen diren analisiak alda daitezke pantaila-editore bat erabiliz. Erreminta honek eskaintzen duen beste aukera bat probak kateatzea da, honek dakarren denbora-aurreratzeaz aprobetxatuz.

CA-Traps-ek PC eta bateragarrietan korritzen du, baina erabilera beste konfigurazio batzuetara ere heda daiteke. Komunikazio-txartel egokia erabiliz sistema handitan garatutako softwarea ere egiaztatu daiteke.

Produktu berri honek fitxategien kodeketa eta hitz gakoaren bidezko babesa ere eskaintzen du, burututako proben konfidentziasuna bermatzeko.

## Radius-TV: MULTIMEDIA SISTEMA MACINTOSH INGURUNEAN

Radius-TV, Macintosh II ekipoentzat zuzendutako sistema integratua, ordenadore eta telebista batez osatuta dago. Telebista-aparatu baten eta Macintosh ingurunearen ezaugarriak bateratzen ditu. Beraz, espektatiba zabalak irekitzen ditu multimedia-arloan.

Radius-TV-ek bideo-prozesurako gailua, audio-eta bideo-irteerarako prozesatzailea, eta telebista-sintonizatzailea ditu. 16 biteko irudiak 640 x 480 puntuz osatutako leiho batean erakutsi eta digitalizatzen aukera ematen du denbora errealean. Soinua ere denbora errealean digitaliza dezake eta telebista-seinaleen tarte bertikalean doan informazioa, errotiluak adibidez, atzitzeko posibilitatea ere eskaintzen du.



Kable bidezko seinaleak eta zuzeneko emisioak jasotzeko gai den sintonizazio-sistema integratua dauka.